



Bertaratuak:

Javier Albizu Sanz jn.

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Santiago Álvarez Folgueras jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Fernando Barainca Lagos jn.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetao Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

Cristina Bayona Saez and.

Representante de las Universidades / Univertsitateen ordezkaria UPNA

Aurora Bernal Martínez de Soria and.

Representante de las Universidades / Univertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Camino Bueno Zamarbide and.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Sonia Cabrero del Amo and.

Representante de las Asociaciones que trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

Ander Domblás García jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Jesús M^a Ezponda Iradier jn.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

Mikel Fernández de Quincoces

Martínez de Birgala jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarteen ordezkaria

M^a Soledad Garjón López and.

Representante del profesorado de

Iruñean, 2017ko maiatzaren 24aren 17:00 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, **Aitor Etxarte Berezibar** Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta **Iñigo Arrizubieta Balerdi Jn.** Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena.
2. Informazio orokorrak.
3. NHSTaren aurkezpena.
4. Araudi txostenaren aurkezpena.
5. Aniztasunari Arretaren Planaren aurkezpena.
6. Galde-eskeak.

1. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena.

2017ko apirilaren 26an egindako Osoko bilkuraren aktari buruz norbaitek zeozer esateko edota objektatzeko daukan galdetzen du Lehendakariak.



centros públicos/Ikastetxe Publikoetako
Irakasleen ordezkaria AFAPNA

Alfredo Hoyuelos Planillo jn.

Personalidad de reconocido prestigio /
Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía jn.

Representante de las entidades titulares
de centros privados de Navarra /
Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate
titularen ordezkaria/ANEG-FERE

Lourdes Larunbe Arretxe and.

Representante del Personal de
Administración y Servicios de los centros
Docentes/Ikastetxeetako Administraziooko
eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Roberto Pérez Elorza jn.

Representante de la Administración
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren
ordezkaria

Josu Repáraz Leiza jn.

Representante de las entidades titulares
de centros privados de Navarra-
Federación de Ikastolas de
Navarra/Nafarroako ikastetxe
pribatuetako entitate titularren ordezkaria-
Nafarroako Ikastolen Elkarte

Nora Salbotx Alegría and.

Representante del profesorado de
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako
Irakasleen ordezkaria LAB

Ignacio Toni Echeverría jn.

Representante de las Personas con
discapacidad de Navarra/Nafarroan
desgaitasuna duten pertsonen
ordezkaria/ CORMIN

Amaia Zubieta Garciandia and.

Representante del profesorado de
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako
Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

Beren absentzia desenkusutzen dute:

M^a José Anaut Couso and.

Representante de las organizaciones
sindicales/Sindikatuaren ordezkaria/UGT

Esther Monterrubio Ariznabarreta and.

Representante de la Administración
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren
ordezkaria

Camino Buenok dio ez dela
identifikatua sentitzen aktaren 5. orrian
agertzen den esaldiarekin, 3. zuzenketari
dagokiona, eta kentzea eskatzen du.

Ezabatze honen ondoren,
Lehendakariak galdetzen du ea beste
objekziorik dagoen, eta inork ez duenez
ezer esaten, baieztapenez onartzen da.

2. Informazio orokorrak.

Azkeneko Osoko Bilkuratik egindako
bilera eta ekintzen berri ematen du
Lehendakariak.

“Landa eremuko eskola Nafarroan”
jardunaldien ondorioz, maiatzaren 3an,
Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Ituren
eta Saldiasko landa eremuko eskoletan
bisita bat egin zuen. Horietako lehenengoa
handitzat jo dezakegu, landa eremua
denarentzako. Bigarrenak, berriz, gela
bakarra dauka. Azalpen bisita bat izan zen,
landa eremuko eskolen ezaugarriak
Parlamentuko Batzordekideei ezagutaraztea
zuen helburu.

Jardunaldi hauekin jarraituz,
Kontseiluaren web gunean ikusgarri daude
hiru hitzaldien bideoak. Era berean,
batzorde teknikoak bere txostena bukatu du



Carmela Muñoz Ventura and.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetaiko Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

Nekane Oroz Bretón and.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren Ordezkaria

Ez ziren bertaratu:

Marta Álvarez Ares and.

Representante del alumnado de los niveles no universitarios de los centros públicos de Navarra/ Unibertsitate aurreko hezkuntza publikoaren ikasleen ordezkaria

Miren Aranoa Astigarraga and.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (EH BILDU)

Pedro María Baile Torrea jn.

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteek Federazioen ordezkaria CONCAPA

José María Carrillo Álvarez jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteek Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Ernesto Delas Villanueva jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteek Federazioen ordezkaria SORTZEN

M^a Luisa de Simón Caballero and.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

Sergio Gómez Salvador jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteek Federazioen ordezkaria CONCAPA

Jorge Lanchas Rivero jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe

eta Batzorde Iraunkorraren hurrengo bileran aztertuko da; monografia eta IDEA aldizkariari dagokionez, lanak oso aurreratuak daude.

Estatuko Eskola Kontseiluko Osoko Bilkuran izandako bere parte-hartzearen berri ematen du. Bertan, Juan Antonio Gómez Trinidad Lehendakariorde kargurako aukeratu zen eta hezkuntza sistemaren egoeraren txostena onestu egin zen. Autonomi Erkidegoko lehendakari gehienek beren ez adostasuna agertu zuten idazki baten bitartez: txostenaren eranskinetan hainbat Hezkuntza Departamentuen ekarpenak agertzen dira eta ez Eskola Kontseiluenak

3. NHSTaren aurkezpena.

Lehendakariak, 2016-2017 ikasturterako planteatutako Eskola Kontseiluaren Lan Egitasmoan agertzen zen NHSTaren ebaluazio Batzordean parte hartu duten Kideen lana eskertzen du



pribatuetako entitate titularren
ordezkaria/ANEG-FERE
Juan Larraza Pérez-Salazar jn.
Representante del alumnado de los
niveles no universitarios de los centros
privados de Navarra / Unibertsitate
aurreko hezkuntza pribatuaren ikasleen
ordezkaria

Karmele Marañon Chasco and.
Representante de las entidades locales /
Toki entitateen ordezkaria

Jasotako 2016-2017 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren hobekuntza proposamenen sinopsis bat dela Kideei luzatu dien dokumentua dio Lehendakariak. Txostena idatziko dutenentzako dokumentu luzeago bat egin da ere, bertan proposamen zehatz guztiak agertzen direlarik.

Ondoren, elkarlan egin duten pertsona adituen proposamenak azaltzen ditu; txostenak jaso beharko lukeen informazioari buruz, erabili beharreko hizkuntzari buruz, eta dokumentuaren erredakzio eta egiturari buruzkoak.

NHSTa lantzeko beharrezko informazioa Eskola Kontseiluari bidaltzeko indikazioekin jarraitzen du, 2016-2017 Txostenaren elaboraziorako Lan Egitasmoa eta irizpen eta NHSTarentzako erabiliko den zuzenketa eredu berriaren aurkezpenarekin bukatuz.

Behin bere hitzaldia bukatuta, Lehendakariak Francisco José Flores ematen dio hitza, egindako lanaren garrantzia eta balorea aitortzen hasten dena. Hala ere, adituek egindako proposamen batzuk eztabaidagarriak direla esaten du, adibidez, hezkuntza ekintzak beren garrantziagatik lehenesteko aholkua, kaltegarria izan daitekeela, kasu horretan, zer lehenesten den eta nork erabakitzen duen eztabaida irekitzen delako eta, gainera, informazioa sakrifikatzeko arriskua igarotzen da.

Hizkuntza deskriptibo bat erabiltzea kontraesankorra dela komentarioen askatasun handiago bat iradokitzearekin.



Azkenik, kasu guztietan iturri originalak erabiltzeak, dokumentuan proposatzen den bezala, testuaren irakurketa oztopatuko lukeela uste du.

Ondoren, Nora Salbotxek hitz egiten du. Hezkuntza Departamentua ez diren erakundeek egiten dituzten hezkuntza izaerako ekintzen zerrendaren sartzeak, gaizkiulertuak sor ditzakeela dio, ekintza bat ez bada sartzen, antolatu duen erakundeak gaizki har dezakeelako.

Proposatzen den beste formatu batera aldatzea interesgarri ikusten du eta nabigagarria era errazan izan beharko lukeela uste du. Hala ere, eguneratzen badoa, NHSTa betiereko zirriborro batean bihurtzeko arriskua dagoela uste du, eta ikuspegi historikoa galtzea.

Jesús M^a Ezpondak hitza hartzen du Batzordearen Lehendakariaren lana goraiatzeko, bere motorra izan delako.

Momentu hori arte egindako interbenzio batzuk komentatzen ditu Lehendakariak. Lehenik, informazioa lehenestiaz hitz egiten denean, ez da esan nahi txostena txikiagoa izango denik, ezta informazioa gutxituko denik, aitzitik, informazio gehiago izateko borondatearekin doaz proposamen guztiak, irakurgaitasun eta informazio bolumenaren arteko oreka mantenduz. Gakoa da NHSTa kontsultatzen duten gehienak datu zehatzen bila daudela, ez da ohikoa txostenaren goitik berako irakurketa egitea, eta lehenespen honekin lortu nahi dena dira irakurketa partzial hauek erraztea. Hala ere, aitortzen du ere lehenestea afera polemikoa izan daitekeela.

Beste erakundeek egiten dituzten hezkuntza izaerako ekintzei dagokionez, hezkuntza sistema formalari buruz ariko ginela argitzen du, ez eskolaz kanpoko edota eskolarekin paraleloan egiten diren ekintzei buruz. Edonola ere, egiten diren jarduera guztiak jasotzea zaila izango da.

Nora Salbotxek planteatzen zituen dokumentuaren eguneratze eragozpenei buruz, Osoko bilkurak onesten duen dokumentua dela NHSTa azpimarratzen du,



beraz, dokumentu egonkor eta finkatua. Beste eztabaida bat izan daiteke eguneratzeak sartzea hurrengo ikasturtean komenigarria izan daitekeen edo ez.

Mikel Fernández de Quincocesek hitza hartzen du, Excel orria erabiltzen duen zuzenketa eredu aurrera pauso bat dela, baina internet gune baten bitartez egin beharko litzatekeela uste du.

Txostenaren eguneratzeen afera berriro hartzen du Camino Buenok. Lehendakariarekin bat dator NHSTa Eskola Kontseiluko Osoko bilkurak onesten duen dokumentua dela NHSTan. Eguneratze edo aldaketak komenigarriak dira, baina beste izen batekin hartu beharko lirateke.

Dokumentuaren gorputzan aldagaien deskribapen bat ematearen proposamenari dagokionez, sinplifikazio behararekin kontraesankorra dela uste du, glosario batean bildu ahalko zirela uste du.

Azkenik, eta kronogramari dagokionez, kideek kapitulu bakoitzaren zirriborroa eskuratu ahal izatea eskatzen du, egiten diren heinean, bere osotasunean bukatuta egoteari itxoin gabe.

Ez denez hitza berriro eskatzen, eztabaida bukatutzat ematen da.

4. ARAUDI txostenaren aurkezpena.

Batzordearen ondorioak aurkezten ditu Lehendakariak. Batzorde hau antolaketa eta funtzionamendu arauak eguneratzeko proposamenak egiteko sortu zen.



Lehenik eta behin, Batzorde Iraunkorrek proposamen guztietan, akordioak era argian egin dituela dio, Araudiaren 40. artikuluari dagokiona izan ezik, hitzaldien eztabaida eta bozkaketa prozedura finkatzen duenak.

Artikulu honen egungo erredakzioa ez du bozkaketa ordena finkatzen, araudi testua tramitatzearen aurkako zuzenketak daudenean, hala nola gehitze zuzenketak, kentze edo aldatze zuzenketak daudenean. Afera hau ez da hutsala, horrexegatik Batzorde Iraunkorrek Osoko bilkuraren baloraziopean jarri nahi ditu lau erredakzio aukera:

- A aukera: lehenengo zuzenketa partzialak bozkutzen dira. Osotasunari zuzenketaren bat onartzen bada, onestutako zuzenketa partzialak jasotzen dira.
- B aukera: lehenengo zuzenketa partzialak bozkutzen dira. Osotasunari zuzenketaren bat onesten bada, proiektua baztertzen da, onestutako partzialak deuseztuz.
- C aukera: osotasunari zuzenketak bozkutzen dira lehenengo, nahiz eta horietako bat onestu, partzialen bozkaketekin jarraitzen da.
- D aukera: osotasunari zuzenketak bozkutzen dira lehenengo, horietako bat onesten bada, tramite gehiagorik gabe baztertzen da proiektua.

Ondoren, txostenean jasotako proposamenak aurkezten ditu, goian aipatutakoa izan ezik. Denboran zehar, aldaketa aunitz jaso dituen egungo araudi testuen berrazterketa eta armonizazio bat dira.

Proposamenaren azalpena bukatuta, Iñaki Iraizozek hartzen du hitza. Eskola Kontseiluaren funtzioen zabaltzearen aurka dago. 40. artikulua erredakzioari dagokionez, D aukeraren alde agertzen da, Hezkuntza Departamentuari eman ahal zitzaizkiola jasotako eta Kontseiluan tratatuak izan ez diren zuzenketak, esaten du.

Ondoren, Francisco José Floresek hitz egiten du, berak Eskola Kontseiluan izan dituen esperientziek, 20 urte baino gehiago irauten dutenak, esaten diote Kontseiluaren funtzioen zabalketa bere funtzionamenduaren dinamikan porrot egitera eramán dezakeela. Beraz, Iñaki Iraizozekin bat dator funtzioen handitzearen aurka egiten. 40. artikuluari dagokionez, D aukeraren alde agertzen da baita ere. Kontseilukideen handitzeari dagokionez, Landa eremuko edota 0-3 arteko kolektiboek ordezkaritza emateko, uste du kideak gai orokorretan ekarpenak egiteko ahalmena



izan behar dutela, eta gai espezifikoak lantzeko “ad hoc” batzordeak sor daitezkeela. Azkenik, ziurtagiri edota kredentzial bat edukitzea komenigarria izan daitekeela dio, Eskola Kontseiluaren partaidetzaren berri ematen duena, orain dela urte batzuk egiten zen.

Santiago Álvarez en lehenengo hitzak 40. artikulua D aukeraren aldekoak dira; aurkeztutako zuzenketak Departamentura bidaltzearen aferari buruz, Kontseiluaren ordezkariaren bitartez horien berri dutela dio. Zuzenketen aurkezpenari epe bat jartzei buruz, Kontseiluan ordezkapena duten sektore batzuen bereiztasunak kontutan hartu behar direla uste du. Gainera, bere ustez, epearen aplikazio zorrotzak, Osoko bilkuraren eztabaidetan gauza interesgarriak ateratzea oztopatuko luke. Francisco José Floresekin bat dator ordezkariaren handitzearen aurka dagoelako, nori dagokien ordezkariaren horiek erabakitzea afera konplexu eta delikatu izango litzateke. Kideen ordezkariak izendatzearen alde egiten bukatzen du bere hitzaldia.

Amaia Zubietaren ustez, Hezkuntza Departamentuak Eskola Kontseiluan lantzen diren gaien berri, beren ordezkarien bitartez izateak, ez du esan nahi proiektu bat baztertzen denean zuzenketa partzialak bidaltzea baliagarri eta komenigarria izango ez denik. Beste irizpen mota batzuk erredaktatu beharko liratekeela uste du, onestutako testuaz gain, nahiz eta baztertuak izan diren aurkeztutako zuzenketa guztiak jasotzen dituztenak. Eskola Kontseiluaren konposizioari dagokionez, gaur egun, irakaskuntza pribatuaren aldeko desoreka bat dagoela uste du, bere ustez, sare bakoitzeko ikasleen proportzioa islatu beharko luke Kontseiluak.

Camino Buenok ordezkariaren alde egiten du. Santiago Álvarez eta Francisco José Floresekin esan dutenarekin bat dator, landa eremuko eta 0-3ko ordezkariari buruz. 40. artikulua erredakzioari dagokionez, A aukeraren alde agertzen da, osotasunari edota zati bati soilik zuzenketa egin dion lanak errespetu bera merezi duelako. Gainera, bere ustez, azkeneko hauek sektore berezi baten sentitzeko era islatzen dute, eta baztertua izan den testuaren erredakzio berriaren gida bezala hartu daitezke. Hausnarketa honen ildotik, Eskola Kontseilua erakunde kontsultiboa dela gogorarazten du.



Alfredo Hoyuelosen ustez, 40. artikulua erredakzio egokiena A aukera izango litzateke, zuzenketen eztabaida baita interesgarri eta aberasgarriena, eta tartean sortzen den hausnarketa, batzuetan, iritzi aldaketara eraman dezake. Eskola Kontseilukideen kopurua handitzearen alde agertzen da, baina nortzuk izango lirateke kide berri hauek erabakitzea da arazoa.

Nora Salbotx bere solasaldia galdera batekin hasten du: zergatik kontsideratzen diren egungo kideak ahalmen handiagokin edota prestakuntza hobegoarekin eskola Kontseiluaren lanak garatzeko. Bere ustez, hizketa paternalista hau gainditzeko beharra dago. Landa eremuko eskola zeharkako izaera duen errealitatea dela dio, Lanbide Heziketari, aniztasunari edota edozein kontuari baliozko ekarpenak egin ahal dizkiola. 0-3 eta Landa eremuko eskolaren ordezkariak sartzearen alde eginez bukatzen du.

Roberto Pérezen ustez, A da 40. artikulua erredakzioaren aukerarik hoberena, Administrazioarentzat Kontseiluan sortzen den eztabaida jasotzea da interesgarriena. Zuzenketak aurkezteko epeei dagokionez, egotea eta errespetatzearen garrantzia azpimarratzen du, bestela, eztabaida oztopatuko da. Parte hartzeari dagokionez, Kontseiluan ordezkariak txikiago duten sektoreak aztertzea komeniko litzateke.

Camino Buenok dio Landa eremuko eskola eskola publikoa dela, ez gaudela sektore batetaz hitz egiten ari, eskolaren aktuazio eremu bati buruz, baizik. Bere ustez, lehenik eta behin, sektore definizioaren barnean zer ulertzen dugun definitu beharko litzateke, eta Landa eremuko eskola eta 0-3 sektore direla ulertuko balitz, sektore horiek Kontseiluan ordezkatuak egotea merezi duten edo ez aztertzea, beste sektore batzuk baino gehiago, Arte Irakaskuntzak, adibidez,.

Iñaki Iraizozek berriro hitza hartzen du Eskola Kontseiluan osotasunari zuzenketa bakar bat ere ez dela inoiz aurrera atera gogorarazteko. Horregatik, hasieran D aukeraren alde egin duen arren, besteetako edozein babestuko zuen, bere ustez, kontu honek ez dauka transzendentziarik. Kontseiluaren osaketari buruz, hau



finkatzea Parlamentuari dagokiola uste du, eta gairen bat tratatzeko, Kontseiluan ordezkariarik ez duten sektoreen bat beharko balitz, gonbidatuaren irudia hor dago.

Mikel Fernández de Quincoces ustez, batzuetan ahazten dugu Administrazioa pertsonen bitartez diharduten dela. Kontseiluan landutakoa laguntza handia izan daiteke araudi testu baten zirriborroa egiten ari den pertsona batentzako, eta horregatik A aukeraren alde dago. Ordezkaritza afera konplexua dela uste du, adibidez, ez dago Landa eremuko eskola mota bakar bat, asko daude.

Ordezkaritzaren gaia lantzea interesgarria izango litzatekeela pentsatzen du Ander Domblásek. Gonbidatuen tarteko aukera existituz, beharbada ez da beharrezkoa izango Kontseiluaren handitzea.

Ordezkarien irudia babesten hasten da Javier Albizu. Era berean, zuzenketa aurkezpenerako 48 orduen epea beharrezkotzat jotzen du. 40. artikulua erredakzioa dela eta, D aukeraren alde dago, hala ere, A aukera babestuko du Administrazioaren gustukuena bada. Bere ustez, Landa eremuko eskolak ordezkari handiago izango balu, ez lirateke hainbeste desagertu izanen. 0-3 dagokionez, Hezkuntza Departamentutik kudeatua izan behar dela adierazten du, Udalek lan hori egiteari utzi nahi diote.

Fernando Baraincak dio Eskola Kontseilua ez dela parlamentu bat, bere helburua Departamentua lagundu eta aholkatzea da, hezkuntza sistemaren kalitate handiago bat lortzeko. Zuzenketa aurkezpenen 48 orduko epearen aldekoa da, malgutasunez aplikatzen bada, adostasuna badago, eta orain arte egin den moduan, zuzenketak eztabaidatzen badira. Ordezkaritzaren afera dela eta, gonbidatuaren irudia nahikoa izan beharko lukeela uste du.

Kontseiluan gonbidatuen parte hartzea babesteko hartzen du hitza Camino Buenok, eta interesgarria izango litzatekeela irudi hau arautzea dio.

Hitza hartzeko eskakizun gehiagorik gabe, Lehendakariak proposatzen du gai hauek Batzorde Iraunkorrera bidaltzea, eta baieztapenez onesten da.



5. Plan Estrategikoaren aurkezpena.

Ander Domblásek, Ordenazio, Orientazio eta Aukeren Berdintasunen Zuzendaria, Aniztasunaren Arretaren Planaren lerro orokorrak aurkezten ditu. Urte bat eta erdiz lan egin da, eta hurrengo hiru ikasturteetan garatuko da.

Gaur egun zirriborro fasean dago plana, eta hurrengo egunetan, lerro estrategikoekin harremana duten hezkuntza komunitatearen eragile eta ordezkariak, dokumentua jasoko dute, beren ekarpenak egiteko eta osatzeko.

Ekaina bukaeran planaren aurkezpena egitea aurreikusten du Departamentuak. Horrekin, Aniztasunaren Arretaren plan estrategikoaren bi lehenengo faseak bukatuko ziren.

Hirugarren fasea irailean hasiko zen, planaren gizartaratzearekin. Hirugarren fase honetan, difusioa, sensibilizazioa eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea egingo da.

Planaren aurkezpena bukatu eta gero, eztabaida bat sortzen da, proposamenak egiten dira eta Ander Domblásek eskertzen ditu, Planean ekarpen hauetako asko jada jasotzen direla zehaztuz.

6. Galde-eskeak.

Francisco José Floresek hitza eskatzen du. Ez ohiko frogak irailetik ekainera pasatzearen ondorioz, ikastetxeen funtzionamendu onean distorsioak sortuko direla dio, ikasturte berriaren egutegia finkatzen duen Ebazpenean, ikasturtearen bukaeran eman diren aldaketak ez dira kontutan hartzen. Ekainaren 1ean notak jartzeak esan nahi du ez direla klaserik ematen maiatzaren erditik.

Beste alde batetik, ekainaren 5atik aurrera gelara ez joatearen betebeharra kendu zaiela ikasleei esaten duten zurrumurruak daudela dio. Departamentua gai hauen gainean egotea eskatzen du.



Roberto Pérezek dio gaia jarraituko dela.

Camino Buenok dio hau ez dela praktik berri bat, aurretik egiten zela, denok ezagutzen ditugun itundutako ikastetxeetan.

Eta jorrazeko beste gairik ez dagoenez, bertaratutako kide guztien parte hartzea eskertzen du Lehendakariak eta saioari amaiera ematen dio 20:20 orduetan.